

Hausnarketarako proposamena

Jon Mirena Landa

EHUko Giza Eskubide eta Botere Publikoen Katedraren zuzendaria

ETA jardun osoan zebilenean Giza Eskubideen inguruan hitz egitea zailagoa zen, zalantzarik gabe, gaur baino. Estatuaren aldetiko estrategia kontraterroristak ikaragarri ziko presioa eragiten zuen: «ala terroristekin ala gurekin». Eta behartutako alternatiba polarizatu horren aurrean, giza eskubideen kulturak atzera egin zuen nabarmen, batez ere esparru publikoaren eztabaida mailan. Alegia: eragile politiko eta mediatico ugariaren ustez Estatuak egindako giza eskubideen bortxaketaz hitz egitea terroristei laguntzea zen, zuzenezuzen. Joera anker hori noraino iritsi zen nabarmentzeko, Martin Scheinin Nazio Batuetako Kontalari bereziak 2008ko maiatzean Espainiara egindako bisitaldia gogora ekartzeko lagunduko digu. Kontalarien lana Estatuak egiten dituzten bortxaketak ikertzea eta dokumentatzea da. Kontalari bereziak ez dira edozein pertsona: definizioz, hots, hautaketa-modu eraginkor eta lan egiteko protokolo eraginkor, ez dute interes ustelki eta beraien lana egoera polarizatueta dauden zailtasunen gainetik egia – eta ez batzuen edo besteen interes politiko, estrategiko edo nazionalak – ateratzera zuzenduta dago. Norbaitek baldin badu estatus objektiboa, sinesgarritasuna eta autoritatea zeozer diotenean kontalari bereziok ditugu.

Martin Scheinin Espainiako politika kontraterrorista aztertzeko Espainiara bisita egiten ari zela, ETAK atentatu bat egin zuen (2008ko maiatzaren 14an guardia zibil bat hil zuen). Egun horretan bertan Kontalari bereziak bere prentsaurrekoa eman behar zuen, eta, oro har, Espainiako prentsa nazionalak leporatu egin zion atentatua ez kondenatzea, nolabait bere lana ETArek mesedetan egiten ari omen zela salatuz. Bakoitzak bere ondorioak ateratu zituela.

2. ETAK behin betiko su-etena aldarrikatu ondoren 5 urte betetzerantz hurbiltzen ari garela, egoera aldatu da. Lehen polarizaziopean zegoen giza es-

kubideen eztabaida monokordetik, eztabaida ireki eta zabalago batera pasatu gara indarkeria politikoiari dagokionez. Eragile ofizialetatik at, eragile akademikoak eta gobernuak kanpoko erakundeak gehiago inplikatzeko ari dira, gertatu zenaz egia bilatzekoan. Egia bakar ofizialetik, mutur batean, hainbat txosten, metodologia, helburu, eduki eta, askotan ere kalitate, oso desberdin dituenak edukitzera pasatu gara beste muturrean. Hori berez ez da txarra: kontrakoa esango nuke. Hasi gara modu irekian mota guztietako bortxaketei buruz eztabaidatzen, eta hori osasuntsua da. Horregatik, giza eskubideetan lan egiten duten erakunde – ofizial zein ez – ofizialen – mapa handitzea, ugaritzea, berri ona da.

3. Gure herrian giza eskubideez arduratzen diren eragileak ez ezik, txostenak ere ugaritu egin dira. Azkeneko urteotan bai gobernuetatik, bai horietatik at, txostenak behin eta berriro argitaratzen dira, eta askotan komunitaritatean azaltzen dira eztabaida publikoa elikatzen. Behin baino gehiagotan, ordea, txosten horiek irakurri gero, inpartzialtasun falta nabaria dute, ez esateagatik zenbait kasutan guztiz sektarioak izan daitezkeela edota erakunde, alderdi edo interes-talde jakin batek bultzatutako ekimen orientatua besterik ez dela. Edozelan ere, hiritarrak maiz inpresioa eduki dezake txosten horiek guztiak susmagarriak direla irakurri aurretik edota irakurri ezinean.

Nire ustez, txostena tresna egokia da giza eskubideen urraketak salatze-ko eta justiziaren bidean – lege edo epaileen lanik ezaren aurrean – urratsak egiten prestatzeko. Baina txostenek sinesgarritasun handiagoa emateko proposamen xume bat nahiko nuke egin: alegia, eskal txosten-sistemarena. Sistema honek ez lieke txosten guztiak eragingo, noski, bakarrik eskal erakundeetatik eratorritzen direnei baizik.

Lehenik eta behin, txosten ofizialek nazioarteko giza eskubideen terminologia jarraitu beharko lukete: bortxaketak (dela tortura, dela behartutako desagerrarazpena, dena delakoa) izendatuta daude nazioarte mailan, eta hor ez luke egon behar eztabaida terminologikoarentzako lekuri. Askotan txostenek, ez zilegiak diren helburuen menpe, hitzen aukeraketa egiten dute, ideologia politikoki jakin

baten arabera. Eta, horregatik, txosten gehienak ez dira konparagarriak. Txosten izena merezi dutenek nazioarteko giza eskubideen zuzenbidearekin bat etorri beharko lukete, hortaz, hasteko.

Bigarrenik, terminologia-erreferentzia garbia edukitzeak diziplina akademiko eta zientifiko desberdinetako «borroka» ordenatzen lagunduko luke. Behartutako desagertzea, adibidez, egon denean, askotan auzimediakuen lana beharrezkoa da. Baina duela asko gertatutakoa balitz, historialarien, antropologoaren eta abarrekoen parte litzeko halabarrezkoak ere suerta liteke. Diziplina bakoitzak, ordea, bere terminologia eta metodologia propioak ditu. Proposatzen dena hemen, horregatik, zera da: horien guztien lana gero txosten baten forma hartu behar denean «itzulia» izan dadila nazioarteko giza eskubideen terminologia eta kategorien arabera. Legelari lan xumea, beraz, izanari izena ematean etzan beharko luke.

Eta azkenik, txosten horiek eskal instituzioek – Eusko Jaurlaritzak batez ere – aldiro eta modu planifikatu baten giza eskubideen planean txertatu beharko litzuzke. Euskadik, Estatu ez den neurrian, ezin du eragin nazioarte mailan giza eskubideen eragile ofizial begiradapean. Dena behar omen da Espainiako erakunde bitartez. Baina, nire ustez, Euskadi mailan Estatuaren antzerako mikro-dinamika bat sor liteke, bai indarkeria politikoko kasuan, baina bai eta eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalen, bai adingabeen politiketan, bai emakume eta genero-politikan, bai arrazakeriaren eta beste hainbeste bortxaketen aurkako politiketan ere, giza eskubideen kontrola sustatuko lukeena. Eusko Jaurlaritzak bere politika sektorialen txosten ofizialak, hortaz, aldiro (bi edo lau urtean behin) aterako litzuzke, beti metodologia berberaren arabera, gobernuan dagoen alderdieraren koloreak hiri aldatu gabe. Eta horrek emango luke aukera gure herria Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen ikuspegi-tik plaza publikoan behar bezala kontrolatua egoteko, eskubide horien inguruko eztabaida funtsatuagoarekin, hiritarrak sinesgarritasuna, gardentasuna eta ere diru-eragingarritasuna irabazita.

Opera

Opera zalea naiz eta beti ametsa izan dut inoiz musikari batek libretoa eskatuko didala. (Behin lagun poeta bat eta biok nire udako egoitzara erretiratu ginen opera baten argumentua lantzeko. Izenburua eta guzti genuen. Alemanieraz, noski: *Die Bachs Oper*. Baina gaizki-ulertu luze



JIRA
Angel Ero

batek lur joarazi zuen proiektua: lagunak hasieratik *Die Bachs Au-pair* interpretatu zuen izenburua eta, J. S. Bachek idatzi nahi bai baina inoiz hasi ez zuen operari buruzko opera gabe, musikariaren hogeitaka seme-alabak zaintzen laguntzera joandako neska gazteari buruzkoari ekina zion).

Egunotan inbidiaz leitu dut Kirmen Uribe opera bat idazten ari dela. Neure burua eskaintzen diot laguntzarik beharko balu. Harreman lesbiko bat agertuko duela iragarri du. Horri ere lotu ahal naitzaio. Ehunka ideia badituz.

Balio beza honek onerakoa: Bilboko enpresari batek 1935eko Londresean ematen duen festan *coloratura* soprano filonazi batek, Irinak, eta Malena izeneko poeta juduak elkar ezagutzen dute, Agirre lehendakaria izatekoak aurkeztuta. Irinak Malenari ea inoiz libreto bat idatzi duen. Txinparta pizten da. Festan ez da dena high girokoa, pobrez batzuk ere badaude, errefluxiatuak edo, koroan – opera guztiak behar dute koro bat – abestuko dutenak.

Desagertzeak

Balea baten arnas hotsa sumatu zuten astelehen gauean Getariako portuan. Zere espeziakoa omen, munduko bigarren animalia handiena (balea urdinaren ostean). Aurrerago zabaldu zenez, itxura ahula zeukan eta bazitekeen zaurituta edo gaixo egotera. Ez ez zekiten ondoezagatik edo arrain-bankuren bati segik hurreratu ote zen portura.



BIRA
Miren Amuriza

Eta, ikusmina zer den, ondorengo orduetan aparkatzeko lekuri ere ez omen zen egon inguruetan. Eguaztenean lagundu zioten itsaso zabalera bueltatzen eta harrezkero ez da balea bakartiaren berririk ailegatu. Ordea, nik nijazio

berezia izan animalioekin eta ezin burutik kendu egunotan; pentsatuz, ea kideekin batzea lortuko ote zuen edo, zioten bezain gaixo bazegoen, hilda egongo ote den honezkeru. Umotan uste nuen zendutakoan flotatu egiten zutela eta izango zela nonbaiten balea erraldoiek, sabela eguzkipean eta, atsedean hartuko zuten lekuren bat. Baina hondoratu egiten dira eta beren gorpuzarretan pilatutako karbono eroaten dute itsasera, horregatik esaten da ozeanoetako arbolak direla animalion gorpuzkiak.

Kasualitatez, asteon, aipau hauxe topatu dut poesia liburu batean: «Balearen anatomia mikroskopikoa dugu, horrek gizakiari segurtasuna ematen dio» (William Carlos Williams). Pentsa zenbatero segurtasuna, ezen, konparazioan hain txikiak izanik ere, gizakiaren meritu zaudela zere baleak desagertzeak.